


2024ko



ZABALDIA

ABERKO

JAI JAIAK

2024KO

ZALDIBARKO JAIAK



DEITU

Zorroan gorde honako txartel hau. Telefono hauek **ERABAT KONFIDENTZIALAK** dira eta horietara deitu dezakezu edozein zalantza galdetzeko eta informazioa edo behar duzuna bilatzeko.

EZ ZAUDE BAKARRIK!

LARRIALDIETAN: 112

24 ORDUKO TELEFONO BIDEZKO ARRETA-ZERBITZUA: 900 840 111



LLAMA

Guarda esta tarjeta en tu cartera.

Aquí tienes unos **teléfonos totalmente confidenciales** a los que puedes llamar para preguntar dudas, buscar información o lo que necesites.

¡NO ESTÁS SOLA!

EN CASO DE EMERGENCIA: 112

SERVICIO DE ATENCIÓN TELEFÓNICA 24H: 900 840 111





2024KO ZALDIBARKO JAIETAKO KARTEL-LEHIAKETAKO IRABAZLEAK GANADORAS Y GANADORES DEL CONCURSO DE CARTEL ANUNCIADOR DE LAS FIESTAS DE ZALDIBAR 2024

1. SARIA/1º PREMIO

IGOR AIZPIRI - SONIA GARCIA

2. SARIA/2º PREMIO

IKER VILLANUEVA

UMEEN SARIA/PREMIO INFANTIL

MIKEL URIZAR

JAI BATZORDEA OSATU DUTEN ELKARTEAK GRUPOS QUE HAN FORMADO LA COMISIÓN DE FIESTAS

- Lagun-Artea Txirrindulari Elkartea
- Zaldua Kirol Elkartea (futbola, pilota, saskibaloia eta mendia)
- Herrixen jaixek (Castet, Zaldibarko dantza taldea, Ilargi argazki taldea, Ennai, Dominika, Zaldibarko Gaztetxea, Guraso elkartea)
- Zaldibarko koral elkartea
- Zaldibarko Arku Taldea
- Helmuga Emakumeen Taldea
- Bizidun Elkartea



ZALDIBARKO GAZTETXEA AGURRA

Aupa herritar!

Aurten ospatu dogun Gaztetxearen 20. urteurrena ez dogu erraz ahaztuko! Lan asko egin ostean, itzela izan zan herri guztia nola astindu genun ikustea. Bihotzak beteta dekoguz ordutik!

Hamarkada hauetan guztietan Gaztetxea gune askea izan da zaldibartarrantzat, eta hori guztion artean lortu dogu ibilbide luze bezain eder honetan, biba zuek! Guk aspaldi ekindako biderei jarraituko deutsalagu, betiko zaratiekin!

Itzelezko ohorea da guretzat beti eskaini deuskuzuen babesa eta esker ona era honetan bueltatu ahal izatea, zuek barik gu ez gara!

Orain hobeto egiten dakigunari ekingo deutsalagu, jaia girotzeari!

GORA ZALDIBARKO GAZTETXIE eta GORA HERRIA!

Hola!

¡No olvidaremos fácilmente el 20 aniversario del Gaztetxe que hemos celebrado este año! Después de mucho trabajo, fue genial ver cómo movimos a todo el pueblo. ¡Estamos emocionad@s desde entonces!

Durante todas estas décadas el Gaztetxe ha sido un espacio libre para los y las zaldibartarras, y eso lo hemos conseguido entre todos y todas en este recorrido tan largo como hermoso, ¡viva vosotr@s! ¡Seguiremos el camino que nosotr@s hemos emprendido hace tiempo, con el ruido de siempre!

¡Es un inmenso honor para nosotras y nosotros poder devolver el apoyo y la gratitud que siempre nos habéis ofrecido, sin vosotr@s no somos nosotr@s!

¡Ahora vamos a empezar lo que mejor sabemos hacer, a amenizar la fiesta!

GORA ZALDIBARKO GAZTETXIE eta GORA HERRIA!



ALKATEAREN AGURRA



Eneritz Azpitarte Aranzabal

Zaldibartar maiteak:

Berriz ere uda gure artean dugu, eta udarekin batera Zaldibarko jaiak.

Jaiak elkarrekin ondo pasatzeko, kultura eta kirolaz goatzeko, aspaldi ikusi ez ditugun lagunak ikusteko edota aldarrikatzenko momentu aproposa dira. Gure eguneroko arazo eta dinamikak ahaztu eta asteburu osoan zehar jai giroan murgiltzeko aukera ematen digute. Jaiak erantzukizunez eta errespetuz bizitzeko deia egiten dizuete. Errespetatu itzazue pertsonak eta baita gure herriko balia bideak ere.

**Gure herriko elkarteek jai egitarau oparoa prestatu dute, adin eta gustu guztieta-
rako egokituak. Gure elkarteek herria dinamizatu eta bizitza ematen diote eta jaietan
ahalegin berezia egiten dute herritar guztiei ekintzak eskaintzeko. Lan bolondresia
egiten duten herritar guztien lana aitortu nahi dut. Herriko jaietaz aparte, aipamen
berezia egin nahi diet gure auzoetako jaiak. Gure auzoak ere gure herria osatu eta
aberasten dute, eta beraz, bertako egitarauaz goatzeko deia egiten dizuete.**

**Aurten Zaldibarko Gaztetxea izango da jaietako txaplogua botatzeko arduraduna.
Gaztetxeak 20 urte bete ditu aurten. Zorionak eta jarraitu deixela zaratiek!!**

**Zaldibarko indarkeria matxista eta erasorik gabeko herria izatea nahi dugu. Zaldibarko
emakumeok jaietan lasai ibili nahi dugu eta ez dugu inolako erasorik onartuko. Be-
raz, erasotzaileei mezu argia bidali nahi diet, gure herrian ez zarete ongi etorriak.**

Gozatu Zaldibarko jaiak. GORA ZALDIBARKO JAIK!!

Zaldibartar maiteak:

De nuevo llega el verano y con él las fiestas de Zaldibar.

**Las fiestas son un buen momento para pasarlo bien, disfrutar de la cultura y el deporte, compartir
con amistades que hace tiempo que no vemos o reivindicar. Nos permiten olvidar nuestros
problemas y dinámicas cotidianas y adentrarnos en el ambiente festivo durante todo el fin de
semana. Hago un llamamiento a vivir las fiestas con responsabilidad y respeto. Respetad a las
personas y también los recursos y mobiliario de nuestro pueblo.**

**Las asociaciones de nuestra localidad han preparado un variado programa festivo, adaptado
para todas las edades y gustos. Nuestras asociaciones dinamizan y dan vida al pueblo y en fies-
tas hacen un esfuerzo especial para ofrecer actividades para todos y todas. Quiero reconocer la
labor de toda la gente que trabaja de forma voluntaria para que nuestras fiestas sean posibles.
Aparte de las fiestas de Zaldibar, quiero hacer una mención especial a las fiestas de nuestros
barrios. También nuestros barrios conforman y enriquecen nuestro pueblo, por lo que os invito
a disfrutar de sus fiestas.**

**Este año será el Gaztetxe de Zaldibar el encargado de abrir nuestras fiestas. El gaztetxe cumple
20 años. Zorionak eta jarraitu deiixela zaratiek!**

**Queremos que Zaldibar sea un pueblo sin violencia machista y libre de agresiones. Las mujeres
de Zaldibar queremos estar tranquilas en nuestras fiestas y no vamos a tolerar ningún tipo de
agresión. Así que quiero mandar un mensaje claro a los agresores, en nuestro pueblo no sois
bienvenidos, no vengáis.**

Disfrutar las fiestas de Zaldibar. Gora Zaldibarko Jaiak!!



ZALDIBARKO JAIK 2024

EKAINAK 21 barikua

21:15 Profesional mailako **pilota partidak**, Olazar pilotalekuan.

EKAINAK 22 zapatua

10:30 **Txirrindularitza** proba: Zaldibarko kadeteen klasikoa.

12:00 Herrixen Jaixen **tortilla txapelketa** Zaldua plazan.

EKAINAK 28, 29 eta 30

XXXII. Areto-futbol maratoia kiroldegian.

EKAINAK 30 domeka

08:30-14:30 XL. argazki rallya liburutegi zaharrear.

UZTAILAK 4 eguena

17:00 Kuadrillen arteko txallengea Zaldua plazan.

18:00 HERRIXEN JAIXEN jaitsiera Zaldua plazatik.

18:30 Donien-atxa.

18:45 Jose Luis Mendilibarri esker ona.

19:00 Zaldibarko dantzariak; jarraian, jaien hasiera iragartzeko txapligua jaurtiko du Gaztetxeak eta gero, buruhandiak.

20:00 Odoloste-jana Bekoetxe kalean.

22:30 Kontzertuak txosnagunean:
ITHAKA ETA ZILIBITO RECORDS.





ZALDIBARKO JAIK 2024

UZTAILAK 5 barikua

- 08:30 Familientzako mendi irteera** udaletxeko plazan hasita. Bukatzean **mokadua** egongo da eskoletako pilotalekuan.
- 12:30 Herri-kirolak** Zaldua plazan, aizkolariak eta Iparraldeko jokoak.
- 17:00 Apar festa** liburutegi aurrean.
- 18:00 Kuadrillen arteko txallengea** Txosnagunean.
- 18:30 Pilota** partidak.
- 19:00 ELEKTROKELA** elektrotxaranga, txosnagunetik hasita.
- 22:30** Kontzertuak txosnagunean: **BELAKO, TATXERS ETA MALAKIAS MX3.**
- 23:00** Dantzaldia **DJ Josemarirekin** udaletxeko plazan.



UZTAILAK 6 zapatua

- 10:00-13:00 Arku jaurtiketa** ume eta helduentzat Olazarko galerian.
- 11:00 JAIZALE** Durangaldeko txistularien elkartearen **kalejira**.
- 12:00 Tortilla txapelketa** eskolako aterpean.
- 13:00-13:30 Zaldibar Arku taldeko arkularien erakustaldia** Olazarko galerian.
- 14:30 Herri-bazkaria** txosnagunean.
- 16:00 3X3 saskibalo** txapelketa kiroldegian.
- 17:00 Kuadrillen arteko txallengea** (FINAL HANDIA) txosnagunean.
- 19:00 MATRAKA** elektrotxaranga, txosnagunetik hasita.
- 19:00 Afari-merienda** Olea kalean, solomoa (1 €) eta sardinak (1 €).
- 23:00 DJ LANDER LUQUE** eta **DJ CANIJO** Olea kalean.
- 23:30 ALTXA PORRU** taldearekin erromeria txosnagunean.



ZALDIBARKO JAIK 2024

UZTAILAK 7 domeka

- 10:30** Antonio Gutierrez **GUTII. memoriala**, Bizkaiko txirrindulari eskolen arteko proba: hasiberriak, alebinak eta infantilak. Hasiera Autonomia kalean.
- 11:00-13:00** eta **16:00-19:00**. **Umeen jolas parkea** eskolako patioan (euria eginez gero kiroldegian).
- 11:00** **Zaldibarko Koralk** mezan abestuko du San Andres elizan eta ondoren kontzertua emango du.
- 12:15** **Euskal dantzak** Zaldua plazan.
- 19:00** **Bertso-saioa**, Zaldua plazan: Etxahun Lekue, Oihana Bartra, Jon Maia eta Aissa Intxausti. Gai-jartzaile: Amaia Agirre.
- 20:30** **"L J 75" kale antzerkia**, udaletxe plazan (euria eginez gero Olazar pilotalekuan).
- 22:00** **Jaietako argazkien emanaldia** kontzertuen eszenatokian.
- 23:00** **Su artifizialak**.



UZTAILAK 12 barikua

- 18:30** **Argazki rallyaren emanaldia** eta **sari-banaketa** liburutegi zaharrean.

UZTAILAK 13 zapatua

- 07:00** **Zaldibarko XLV. mendi martxa**, Zaldua plazan hasita. Bukatu: udaletxeko plazan.





GOIERRI AUZOA SANTA MARINEKO JAIK 2024

UZTAILAK 18 eguena

- 12:30 **Omenaldia** auzoko nagusiei. Ondoren salda.
- 18:00 **Taberna** zabalduko da (txistorra egongo da).
- 19:00 Jaiak iragartzeko **txapligua** eta **donien-atxa** altxatu.
- 20:00 **Bolo txapelketa**, kanporaketa. Eusko Labeldun Basatxarri solomo pintxo potea.

UZTAILAK 19 barikua

- 20:00 **Sardina-jana**.
- 21:00 **Bolatokia** martxan.
- 21:00 **VIII. Rock** jaialdia.

UZTAILAK 20 zapatua

- 11:30 **Bakailao** eta **paella** txapelketa
- 12:30 - 13:30 **Izen ematea**.
- 14:15 - 14:30 **Paellak** aurkeztu.
- 14:30 - 14:45 **Bakailaoa** aurkeztu.
- 17:00 **Mus** eta **briska** txapelketa.
- 18:00 **Antzerkia**; ondoren txokolate-jana.
- 19:30 **Buruhandiak**.
- 21:00 **Erromeria**.
- 21:00 **Bolatokia** martxan.
- 23:00 **Bolo-txapelketa**.



UZTAILAK 21 domeka

- 17:00 **Ume eta gazteen Bolo-txapelketa**.
- 18:00 **Asto-probak**.
- 18:30 **Ume eta gazteen herri-jokoak**.
- 19:30 **Donien-atxa** bota.
- 20:00 **Argazki proiektzioa**.
- 21:00 **Jaiei amaiera emateko traka**.

2024 ko

ZALDIBARKO

JAIK

